


ZER BERRI



Aizarnazabalen

APIRILA 2024

www.aizarnazabal.eus

GAIAK

- 1- UDALEKUAK. AURREMATRIKULA
- 2- GAZTETXOKOA. IZENA EMATEKO DEIALDIA
- 3- TREBA GURASOAK. GURASOEI BIDERATUTAKO
HITZALDIA
- 4- JAI BATZORDEA
- 5- ASTE SANTUKO ELIZKIZUNAK
- 6- JAN SANO ETA BIZI POZIK

1- UDALEKUAK. AURREMATRIKULA

Apirilaren 8an zabalduko da udalekuetako aurrematrikula epea.

Aurten uztaileko lehen hiru asteetarako aurreikusi dira udalekuak. Aurrematrikula egiterakoan zuen seme-alaben itxaronaldia aukeratu beharko duzue; astekakoa ala bere osotasunean 3 astekoa den.

Bete beharreko galdetegia liburutegian eta telegramen/whatsapp aplikazioetan eskuragarri egongo da apirilaren 8tik 19ra arte.

Matrikula ofiziala egiteko epea aurrerago jakinaraziko da.

2- GAZTETXOKOA. IZENA EMATEKO DEIALDIA

Lauburu eraikinean aurkitzen den 12-16 urte arteko gazteentzat bideratutako espazioa da gaztetxokoa. Izena emateko baldintzak:

- Adin tarte: 2008-2012 urte artean jaiotako gazteak.
- Epea: Apirilaren 15etik aurrera.
- Lekua: Liburutegian

OHARRA: Inprimakia guztiek beteta ekarri beharko dute, hau da, egun izena emanda dutenek ere berriztatu egin behar dute.

Aurrerago argibide gehiago emango dira.

3- TREBA GURASOAK. GURASOEI BIDERATUTAKO HITZALDIA.

Apirilaren 25ean, TREBA GURASOAK programaren baitan, haur eta nerabeen gurasoei zuzendutako hitzaldia eskainiko da.

- Gaia: *“Haur eta nerabeen emozioen bidelagun: Nola zaindu seme – alaben emozioak”*.
- Lekua: Lauburu eraikina
- Ordua: 18.00
- Trebatzailea: Donna Apellaniz Nieto
- Izena ematea: Apirilaren 8tik 19ra. Liburutegian, liburutegia@aizarnazabal.eus edo 943147761ra deituta.

4- JAI BATZORDEA

Apirilaren 17an, arratsaldeko 18:00etan udaletxeko bilera aretoan izango da 2024ko jaien antolakuntzarako bosgarren bilera.

5- ASTE SANTUKO ELIZKIZUNAK

OSTEGUN SANTUA JUEVES SANTO Martxoak 28 Marzo	18:00 21:00 Otoitzaldia
OSTIRAL SANTUA VIERNES SANTO Martxoak 29 Marzo	11:00 Gurutz Bidea 18:00
LARUNBAT SANTUA SÁBADO SANTO Martxoak 30 Marzo	17:30
PAZKO IGANDEA DOMINGO DE RESURRECIÓN Martxoak 31 Marzo	12:30 (HL / LP)

6- JAN SANO ETA BIZI POZIK

Jan sano eta bizi pozik azokan parte hartu nahi duenak apirilaren 8tik maiatzaren 8ra bitarte izena eman dezake 634954086 deituta edo alkatetza@aizanazabal.eus kontura idatzita.

UDALAK ESKERRIK BEROENAK EMAN NAHI
DIZKIZUE ERA BATERA EDO BESTERA
KORRIKAN PARTE HARTU DUZUEN GUZTIOI,
MILA ESKER!!



**2023ko errenta
AITORTZEKO Kanpaina**

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ 2024

Internet bidez, telefonoz, banketxean
edo aholkularitzan. Aurten ere, egin
ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ!

AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA

Jasotako proposamena onartzerakoan, telefonoz zein internet bidez, euskaraz egin nahi duzula esan, eta aurrerantzean ogasunak agiriak euskaraz bidaliko dizkizu.

MEKANIZATUA

- Hitzordua hartzerakoan, adieraz ezazu ogasunarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula.
- Horrela eskatuz gero, ogasunarekin harremana euskaraz izan dezakezu, bai aurrez aurre, eta bai telefonoz zein Internet bidez ere.
- Ogasunak sinatzeko ematen dizun orria ere euskaraz jaso dezakezu.

INTERNET BIDEZKOA

- Errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara hautatu.
- Aholkularitzaren bat aukeratzen baduzu, berariaz adierazi beharko duzu aitortpena euskaraz egin nahi duzula.
- Beste modu batean egiten baduzu (finantza erakunde batean, esaterako), euskaraz egiteko eska dezakezu).



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

Iaz Aizarnazabalen aurkeztu ziren 426 aitortpenetatik 204 izan ziren euskaraz, %47a.
Animatu errenta aitortpena euskaraz egitera!